

## Kala-beruna txikia

Alex Gurrutxaga

**O**rain arte prosan jardun du Karmele Jaiok, hala eleberrian nola narrazioan. *Orain hilak ditugu* da, beraz, gasteiztarraren lehenengo poema liburua.

Nitasunetik idatzitako poemak dira liburu honetakoak, eta nia- ren desziurra, kezka eta irrikak dira ardatz. Hilak-hurre- eduki- tzeak helduaroari eta bizitzaren gorabeheret egiten die erreferen- tzia; hor azaleratzen dira desira, minak, beldurrak, oroitzapenak. Lau atal dauzka liburua, eta az- ken atala da, beharbada, finena: iluna, baina amaiera baikorrare- kin.

Poesia lirikoak da Jaiorena: bar- ne-bizitzaren eta sentimenduen adierazpena da haren funtsa. Garbi ikusten da hori espazio poe- tiko nagusietan: itxiki dira, etxea agertzen da unibertso gisa, eta eremu intimo horretan azale- ratzen dira ni poetikoaren senti-

mentuak -*Nire herria* poema da salbuespen aipagarriena, poema indartsua-. Mikrohistoria da egi- leak aldarrikatzen duena, egune- roko bizitza ohikoaren epika txi- kia. Eta, historia txiki horretan, emakumea nabarmentzen da ba- tez ere.

Bestalde, ni poetikoaren aho- tsak zerikusi gutxi dauka Lizardi- ren, Xalbadorren edo Leteren ja- rrera antzaldatuarekin; lirika xu- mea da hau, eta poetaren ahotsa



### 'Orain hilak ditugu'

Egilea: Karmele Jaio.  
Argitaletxea: Elkar.

ez da indartsu eta irmo agertzen, ahots apalez eta gertutik mintza- tuz baizik.

Eragozpen handi bat dauka li- burua: irudi politik edo iradoki- zunez beteak sortzen ditu egile- ak, baina haien garapen poetikoa oso juxtua da. Asetzaileak gerta daitezke *Mitxoletak*, *Harmonia*, *Lurra bion artean* eta *Hildakoe- kin doazan zapatak* poemak. Al- diz, huts egiten dute *Etxeko za- patilak*, *Tantak*, *Izarak* eta *Kan- paitxo* poemek. Ideia

esanguratsua bai, baina poema egin gabea: konstante da arazo hori. Sentimendua bideratzen duten irudi ederrak aurkitzen ditu poetak, oso eraginkor- rakin daitezkeenak barne-mun- duaren errepresentazio poetiko- rako. Horretan begirada oso tre- bea dauka egileak. Gero, ordea, gutxitan garatzen da poema sa- koneran; irudiak luzatu egiten dira, eta poemaren dimentsioa nekez hazten da. Inork aipa leza- ke sotilaren bilaketa, edo txikita- sunaren poesiaren izen gorenen bat -hala nola Szymborska, edo azken aroko Gamoneda, Jaiok berak liburura dakarrena eta he- riotzaz hain maisuki idatzi due-

na-, eta apika iduri luke gisa ho- rretako poesia egitea errazagoa dela. Baina ogiaren eta arrainaren parabola jakin beharrik ez dago uste okerra izaten ohi dela kon- turatzeko, poesian bederen: gu- txirekin asko egitea askorekin asko egitea baino zailagoa da.

Analogiaz eraikitakoak edo nar- ratiboak dira poema gehienak -«oso ipuin modukoak», egile- ren hitzetan-, eta narrazioak di- renetan garapena tenporala da batez ere; hau da, luzeka, ezen ez barrantz. Adibidez, maiz ikus- ten da poemak ixteko joera, dela lerro borobil bat dela erremate modukoak jarriz (adibidez, *Perla*- n eta *Dekoratu*-n). Hizkera poe- tiko soila da oso, ongi bat egiten duena ni poetikoaren tonuare- kin; troporik ez dago ia, eta erri- moa markatzen duena ez da ber- tsolerroa, esaldia baizik.

Azken batean, poesia fina da *Orain hilak ditugu*-koa, baina dentsitatea falta du: irudi politik asko dira, pintzelkada sugestibo- ak ere ez gutxi, baina indarra gal- tzen du sakoneranzko bidean. Karmele Jaiok jartzen duen amu- kua oso delikatu da ia beti, baina kala-beruna txiki xamarra.



### 'Joxinixio gudaria'

Egilea: Mikel Atxaga.  
Argitaletxea: Auspoa.

**J**oxinixio Etxeberria gudaria- ren bizitzan oinarrituta idatzi zuen Mikel Atxagak *Joxinixio gu- daria* eleberria. Andoaingo (Gi- puzkoa) Goiburua auzoko Merdi- legi baserriko seme zen Joxinixio Etxeberria, «bertsolaria, txapel- ketetan ibili ohi zena, eta 1936an herri mailakoa irabazitakoa», hi- tzaurrean azaltzen denez.



### 'Besamotz Tximino musuzuria'

Idazlea: Luis Mariano Ruiz Agirre.  
Ilustratzailea: Esther Lobo.  
Argitaletxea: Tierra de nubes.

**B**esamotz jaiotzez beso bat bestea baino askoz motzagoa duen tximinoa da. Tximino mu- susuriak bazterrean uzten dituz- te kide ahulenak, ez baitira zain geratzen erortzen direnean. El- kartasunaren eta oihanaren lege- aren arteko talka.



### 'Bost truke. Andeatako, Kurdistaneko eta Serbiako jasokinak'

Egilea: Jon Sarasua.  
Argitaletxea: Pamiela.

**K**olonia, Bolivia, Kurdistan, Ekuador eta Serbiara egin- dako lan bidaietako testu labu- rrek osatzen dute *Bost truke* Jon Sarasuaren azken liburua. Bazter- horietako gertakari txikien ma- rrazki sorta moduko bat da.

## Margolanetan barrena



Imanol Mercero

**A**rtearen historian sar- tu-irten bat egiteko balio duen narrazio ilustratua da, batik bat *margogintza* jotzen badugu artearen adierazpide nagusitzat.

Fikziozko narrazio baten aitz- kian, margolan ospetsuen molda- penak eginez, hirurogei orrialde- tan luzatzen da liburua. Istoriaok ez du mami literario handirik, besterik gabe hainbat irudiren au- rretik paseatzeko ez bada, baina bere tentsio guneak eraikitzen di- tu, irakurle hasiberriak nolabaite- ko gozamen har dezan.

Artelanak imitatzean neurritz kanpoko lizentzia hartu da, imi- tatzen den obraren egilearen oi- nariak baztertu edota kontrajar- tzeraino. Kasurik larriena Piet Mondrian margolariaren obrare-

kin sortu den kontraesana dugu, Mondrianen teorizazio kromati- kua ez baita errespetatzen.

Narrazioa hiru artelanetan oi- narritzen da: aipatu Piet Mon- drian-en obra berantiarak, *Ve- nus* eta *Kupido* erromatarrei bu- ruzko margolanak -Bronzino rena, esaterako- eta Alberto Gia- comettiren giza eskultura luzan- gak. IKAS argitaletxeak 2013an margogintzari buruz kaleratu zuen *Sagutxo margotxo* albuma askoz borobilagoa da, nire ustez.



### 'Aingeru galduren bila'

Idazlea: Max Ducos. Ilustratzailea: Max Ducos. Itzultzailea: Maritxu Riviere.  
Argitaletxea: IKAS.

## 'Some Like It Hot'



I.M.

**I**rudia handiz lagundutako testu laburrekin osatzen ari den Txirrista bildumako bosgarrena da *Begiak itxita hegan*. Ez dakit album ilustratu izatera iristen den; marrazkiek berebiziko indarra dute, nahiz eta irudiak begiratu gabe ere mezuaz guttiz jabetu daitezkeen.

Muinean haur baten ezinego- na dago, bere buruarekin duen identitate borrokaren isla dena. Mutila izanik, ez ditu bere gene- roari izendatu ohi zaizkion rola- k maite, eta, esaterako, gona janz- tea desiratzen du. Arazoa amesgaizto batekin aurkezten zaigu, eta burutatu batekin askatzen.

Testuaren pasarte gehienak ametsezko edota irudimenezko eremu- tan jositako daudenez, haur

protagonistaren ingurua apenas ezagutzera iristen garen, eta horrek, irakurketa arintzeaz gain, fokua gaitik ez aldentzen laguntzen du. Gaia hain zehatza izanik ere, obra honek baditu gutxienez bi aurrekari eskal sortzaileen eskuetatik etorriak, *Mikel* eta *Mikaela*, eta *Markos kantinera*, rol banaketa zurrune- k gure egunerokoan duten pisuaz hausnartzeko baliaga- rriak direnak, ez bakarrik Irun eta Hondarribian.



### 'Begiak itxita hegan'

Idazlea: Leire Arano. Ilustratzailea: Aitziber Alonso. Argitaletxea: Ibaizabal.